

Karrantzatik Garazira Bardeatik barna

ez nabil, ez, Korrikaren ibilbidea aldatzen. Korrika abiatuko da Karrantzan eta Iruñean amaituko, igaroko da Donibane Garazitik eta utziko ditu Bardeak eskuiñean Tafallatik Tuterarako bidean. Azkenaldian egin ditudan ibilien triangelua da izenburukoa.

Korrikaren abiapuntu izango den aitzakian joan nintzen, Karrantzara, hori bai. Bilbotik mendebalderantz paisaia aldatuz doa. Hasten dira ikusten eukaliptoak. El Mazo eta Ranero artetik sartu, ibaia beti bidaide, eta zoratzeko moduko sare bat da Karrantza, Kontxatik, erdiko gunetik, norabide guztietan zabalitzen dela. Lurraren erraietan Pozalaguako estalaktita eszentrikoek ehundaka, edo akaso milaka aldiz biderkatzen dute egitura erradial hori. Irudimen aberatsenak ere nekez sortu ahal izango luke grabitatearen legeak auzitan jartzen dituen kapritxoak. Lur azalean beste eszentrizidade bat, Sopeñako artadia, gunedierraneo bat Kantauriren erreinuan.

Toponimian bezala, izen-abizenean erdal oihartzuna ugari: Palacio eta González, Raul eta Sergio. Hauek ere *eszentrikoak* dira, euskal hiztunen kopurua ehuneko zortzi den herrian, euskaraz ikasi dute "poliki poliki, bizitza gozatzeko". Duela hogeiren bat urterarte Durangaldetik-eta azoketara etortzen zirenak "los vascos" ziren karrantzarrentzat. Orain inork ez omen du esaten "ése es vasco".

Donibane Garazin, hamalau artista *Emazteen artea* erakusketan. Zaharrena, Marie-Hélène Gastigard, Kanbokoak, 36ko Gerrako iheslarien laguna, haietako bat hartu zuen senartzat, Jesus Etxebarria eskultorea, Baranbioko arabarra, gudari ohia. Gazteena Zoe Bray, Europan aldenik alde etxeko pasiloan bezala ibiltzen den margolaria, Izuran pausalekua jarri berri, Donostiako Artelekura etorri nahi luke egonaldi bat egitera. Tartean Angela More-



ALBERTO ELOSEGI

no nafarra, Uhartekoa, eta Rosa Valverde donostiarrak, Azkainen bizi. *Frantsispana* lardatuz hitz egin dut gainerakoekin: Christine Etchevers, Kanbokoak hau ere; Florence Etchart, Altxürükün bizi den bordelesa, Maurice Béjarten taldeko dantzaria izana margotzen hasi aurretik; Jacqueline Lebrun, baionarra sortzez, bizitza Parisen egin eta orain Lekunberrin kokatua, Donapaleuko gau-eskolako ikaslea...

Josette Dacostak aurkeztu dizkit banan bana, *Etxea* behin eta berriz margotzen duen artista etxekoandere paperean, erakusketa antolatzen ere ibili baita. Perfumez perfume, glamour tantak darizkie bizitzaren erditik aurrera doazen emakume artista hauei. Zenbaitzuk han-hemenka ibili eta gero hautatu dute Euskal Herria bizitzeko. Askok daukate familiaren historian Iparraldeak bizi izan duen emigrazioaren arrastoa. Ia denek dute aitaxi edo amatxiren bat euskaldun garbia omen zena. Tamalez, diote, eten zen katea.

Arguedaseko kafean berehala antzeman digu Marian La Pinturerak: "*vosotros sois vascos, ¿de San Sebastián o de Gas-te-iz?*", silaba bakoitza ondo ahoskatu nahian. Ez zuen asmatu; nafarrak dira Artamugarriak taldeko artistak, erdiak-edo euskal hiztunak, bere kasa ikasi duen Patxi Aldunate barne.

Bakearen eta demokrazia parte hartzailearen alde dihardute, eta ekainean egin asmo duten ekintza prestatzera joanak ziren Bardeatarak. Mendebalak ekarritako euripean, goardia zibilekin topo. Eskerrak natura babesteko taldekoak ziren goardia zibilak, txikizioan ibili ohi diren moteroen ordez, artista bakezaleen taldea geldiarazi eta identifikatu behar. Haiek ere, Marianek bezala, "*son vascos*" pentsatu zuten nonbait, ikurriñaren lekuan Afrikako tribu galdu batego bandera baldin bazeramaten ere furgonetan artistek.

Karrantzatik Garazira, Bardeatik barna, *vasco, basque* eta euskaldun, euskal herritar izateko hainbat modu, mila ñabardura. Paisaiaren forma, egitura, kolore eta usainak adina. ▢

« Karrantzatik Garazira, Bardeatik barna, *vasco, basque* eta euskaldun, euskal herritar izateko hainbat modu, mila ñabardura. Paisaiaren forma, egitura, kolore eta usainak adina »

